

Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Langileen defentsa

Espainiako trantsizioa bezala izendaturiko aldian planteatzen zen erreforma edo hausturaren arteko hautua, politikan sarri egin beharrekoa izaten dela nabarmen geratu da azken denboraldian. Erreformaren aldeko apustua egin dute gobernu ezberdinek eta etxearen zimenduak gehiegi mugitu gabe uretatik burua nola aterako garen erabaki dute, ia ura lepoan genuenean. Finantza sistema eta bankuetxeak ukitu ezin omen direnez —erreformaren markoan—, beste neurri edo adabakiak aplikatu dira, gastu sozialaren murrizketa eta lan merkatuaren erreforma erakusgarri. Argudioa, ez dago besterik, neurriak hartu ezean denak itoko gara.

Haustura. Herritarren eskubideen murrizketa dakarten neurriak ezin dira onartu eta urteetan langile mugimenduak lorturikoari ezin diogu orain bizkarra eman, gobernu batek, gehienek, etxeko-lanak gaizki egin dituztelako eta politika ekonomiaren aurrean makurtu delako. Neurrien berririk ez dut, elkarbanatu ditzakegun argudio filosofiko eta ideologikoak bai.

Nola erantzun hein batean ahaztuak izan diren kaleratuei, EEEen dagoen langile bati eta greba egunean lanerako deitu diotenari. Konplexua. Erreforma neoliberalak ez dute kon-



INIGO AZKONA

ponduko arazoa, sustraikoa da, eta langileen eskubideen defentsaren ikurra hartu dute denek, sindikatuak, Alderdi Popularrak ere, oposizioak. Sindikalgintzaz hitz egitea gurean surrealista da, sindikatuak eta ereduak mintza beharko genuke. Langile askok ordea, euren burua, gero eta urrutia-ko ikusten dute sindikatuetatik.

Merkatuaren dualizazioaz mintzo dira eta askok defentsa dualizatua praktikatu dutela ahaztu dute, prekarietateaz mintzo dira prekarioak oso gutxitan egon direnean negoziazio mahaian. Maiatzaren 25ean euskal sindikatuen gehiengoak greba deialdia egin zuen sektore publikoan eskubide sozial eta zerbitzu publikoen alde. Enplegatu publiko eta afiliatuen soldata murrizketek zerikusi gutxi omen zuen deialdiarekin. Litekeena, baina horrela zioen greba egunean Metro Bilbaoko sindikatuen komunikatuak: “Ados gaude greba deialdiarekin baina ez dugu gure enpresan deitu, protesta ekintzak eta neurriak murrizketak gure enpresara heltzen direnerako utziz. Hori bai, errespetatzen dugu greba egin nahi duenak greba egiteko duen eskubidea”.

Besterik ez genuen behar! Sindikalista batzuen instituzionalizazioak ez dezala ezerezean utzi historian langile mugimenduak eta borroka erakutsitako duintasuna. ■

«
Sindikalgintzaz hitz egitea gurean surrealista da, sindikatuak eta ereduak mintzatu beharko genuke
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ginen, gaztetan denbora guretzat izan ez genuenok. Gehiengoa. Heren bat, gazte unibertsitarioz osatua. Irakaslea eri, ordezkari bat ekarri digute, hondar hilabetean bere jakinduria ematen saiatu dena. Eta asmatu. Azterketa garaia. Irakasle titularra saiatu zaigu ordezkapenak kalte egin ez diezagun. Ongi joan da, pasatu behar zutenak pasatu dira, aurrera egiteko arazoak zizutzenak —ez titularrik ez ordezkorik— irailerako gelditu dira. Emaitzak aurkeztu ondoren, askaritzo bat egin dugu. Bigarren tragoz, Sanmartzialak aipatu ditu ordezkari donostiarrak. Eta Alardea zen noski aipamenaren sustrai. Hemeretzi-

Klasean

tik, bat isilik eta beste bat ordezkariaren alde. Hiru horiek ezik, guztiak irundarrak eta hondarribiarrak. Ez gaituzte jan, askari gaiei esker. Ez dakigu deus, ez dugu ezer ulertzen. Orain arazoa ez da Alarde mistoa, orain berritzez eta bukatzez dagoen San Joan plaza dute eztabaidagai. Joan daitezela mistokoak ahal duten lekura, gu betikotan oraingoan ere. Izan ere, mistokoek beti egin izan dute berea gehiengoa kontutan hartu gabe. Ez dira demokrotak, inposatzaileak dira. Alferrik hiruek jaurtitako argudioak, musika garaikidea ez da betikoen belarrirako egina, musika atrileko grafia dutenentzat. Txilibitox pasako dute azterketa, tribunalak ere txilibiteroa baita. ■